




Igerabide: «Idazleak aurretik joan behar du, eta gero irakurleak irabazi»

ADUNA ▶ Beterriko Liburua Literatur Aipamena jaso du Juan Kruz Igerabide idazle adunarrak jaioterrian, 'Hauts bihurtu zineten' eleberriarengatik ▶ 6



Juan Kruz Igerabide, Adunan, saria jaso ondoren. I. GARCIA



N. LATABURU

LUIS ELIZETXEA ▶ IRAKASLE, KAZETARI ETA IDAZLEA

«Eleberria gozatzeko eta gozarazteko idatzi dut»

'Bajo el nivel del mar' bere lehendabiziko lana kaleratu du ▶ 4

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Urrezko aizkolari eta harri-jasotzaileen lehia, bihar

Arrospide eta Otaegi aizkoran eta Saralegi eta Perurena I.a harri-jasotzen ▶ 3

BERROBI ▶

Ate joka dira XVI. Kultur Asteko ekitaldiak

Ipuin kontaketa, hitzaldiak, antzerkia, sukaldaritza... astelehenean hasita ▶ 3

ZIZURKIL ▶

Olentzo, artista ezezagunen erakuslehi

Eskulturgileentzat lehiaketa deitu dute ▶ 7



10 sailkatuen obrekir erakusketa egingo dute Olentzon. J. ASTIBIA

OSTATV JATETXEA ITZIAR ETA AMAIA

- Eguneko Menua
- Plater Konbinatuak
- Asteburuko menuak 21-28 €

Erreserba egiteko deitu 11:00etatik 16:00etara

Alkizako plaza • ALKIZA • Tel.: 943 69 18 36

ESKOLA TXIKIEN TOPAKETA ▶

Kirolak eta harremanak bat Berazubin

Eskualdeko 8 eta 12 urte bitarteko 180 ikasle aritu ziren atzo goizean

NEREA URBIZU

Tolosako Berazubi estadioan bildu ziren atzoko goizean hainbat ikastetxe txikietako ikasle. Helburua, jolasa eta kirolaren bidez ondo pasatzea eta ikasleen arteko harremanak estutzea. Parte-hartzeari ere garrantzia ematen diote Eskola Txikietako kideek.

10:00etatik jada, 3. eta 6. maila bitarteko ikasleak korrikari eta jolasean ari ziren. 180 ziren guztira, eta Lizartza, Aitzo, Ikaztegieta, Berrobi, Aduna, Albiztur, Bidegoian, Berastegi, Alkiza, Itsasondo, Abaltzisketa eta Zizurkilgo eskolakoak ziren denak.

Bidegoiango gaztetxoak etortzeko autobusak bideko istripu bat zela eta, autobus hori hartzekoak ziren ikasleak beranduego aliegatu ziren, baina jolas guztietan parte hartu ahal izan zuten.

Beste eskolekin harremanak izateko, honela egituratu zituzten talde ezberdinak: eskola bakoitzeko gutxienez bi ikasle talde berean jarri zituzten, isolamendurik ez eragiteko. Hau guztia 26 umez osatutako 35 taldetxoetan banatuta, beraz. Mailak ere kontuan izan zituzten; hau da: 3. eta 4. maila elkartuta, eta beste alde batetik, 5. eta 6. mailako ikasleak.

Egindako probak

Atzoko probak gehienak herri kirolekin zeuden lotuta. Estadioa hiru area edo zonaldeetan banatu zuten. Batean zirkuito baten antzekoa egiten zuten,

hau da: lokotsak biltzea, 60 metroko korrikaldia, zaku lasterketa, txingak (esku bakoitzean 5 litro), hesiak eta 200 metroko korrikaldia, pistaren buelta amaitzeko.

Beste zonalde batean luzera jauzia egiten zuten, hondarraren gainean salto egitea, hain zuzen. Horren ondoren, pisu jaurtiketa egiten zuten. Ikasle gehienak, pisua zuen pilota ia 5 metroak arte jaurtitzera iritsi ziren.

Bertako pilotalekuan beste bi jolas landu zituzten: pilotan jokatu zuten bi taldeetako partaide guztiek. Ondoren, sokatira egiten zuten bi taldeen artean.

180 ikasleek jolas guztietan hartu zuten parte. Gosaria egin zuten ondoren, eta ekitaldia 12:00etan amaitu zuten. Autobusa hartuta, arratsaldean berri ere eskolara bueltatu behar izan zuten.

Topaketaren helburuak

Tolosaldeko Eskola Txikien IV. Kirol Topaketa izan dute honakoa. Beti Berazubi estadioan antolatzen dute, eta 8 eta 12 urte bitartekoei zuzenduta dago. Esan bezala, Kirol Topaketak bi helburu ditu nagusi: ikasleen arteko harremanak bultzatzea eta kirol praktika sustatzea.

Ez da lehiaketa moduan egiten, baizik eta taldean jolasten eta inolako lehiakortasunik gabe. Ikasleek era honetara berdin disfrutatzen dutela azpimarratu nahi dute antolatzaileek.



Lokotsak jasotzen. Atzokoan oskolak izan ziren zirkuitoan egin behar zituzten jolasen artean lehenengoa. Ondoren, korrikaldiarekin lotu egiten zuten, eskuan azken lokotxa harturik. Borrokatua izan zen proba hau. Irudian kozkorrenek jokatzeko agertzen badira ere, gazteboenek ere egin zuten proba neketsu hau. N. URBIZU



Sokatiran. Pilotalekuan sokatiran ere aritu ziren, adinaren arabera, eta alde bakoitzean talde ezberdinak jarri. Neskato hauen taldeak irabazi ez bazuen ere, saiatu, saiatu ziren. N. URBIZU



Luzera jauzian hondar gainera. Esfortzu handirik egin gabe ere, metro bat saltzera ailegatzeko ziren ikasleak. Saltatzeko zekitenek, ordea, bi metro eta erdira ere iritsi ziren. N. URBIZU

TP TOLOSALDEA GOMAILAKO I. N. INSTITUTUA
INSTITUTO SUPERIOR DE FORMACIÓN PROFESIONAL TOLOSALDEA

JARDUNALDI IREKIA

Ikasle, guraso, langile, enpresa eta interesatutako guztiei zuzendua.

Ikastetxeko instalazioak ezagutzeko bisita gidatua eta bere eskaintza akademikoa.

Eguna: Osteguna 11
Ordua: 18:00etatik 21:00etara
ZURE ETORKIZUNA ZIURTATZEN DUGU

www.tolosaldea.com • Tel.: 943 65 11 47

zuhazki Zuzendutia

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria

JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tel.: 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55
"Cuatro vientos" Industrialdea, 1
Txarama auzoa • 20491 Leaburu

ARAMBURU

Alokatzeko. Pisua. Ibarra, Anoeta, Alegia, Amezketeta eta Lasarten.

Salgai (Tolosa).
Pisua Belate kalean. 75 m².
Salgai (Tolosa).
Pisua San Frantzisko, 17. 140 m². Garajea aukeran.
Salgai (Tolosa). Pisua Laskorain kalean. 5.-a igogailuarekin.
Salgai (Tolosa). Pisua Laramendi kalean. 112m².
Salgai (Tolosa). Garajeak Plaza Zaharrean, Pedro de Tolosa eta Leidoren.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

BERROBI ▶ KULTURA

Ekitaldiz beterik dator XVI. Kultur Astea

Datorren astelehenetik larunbatera bitarte ekitaldi ugari izango dira: hitzaldiak, sukaldaritza, ipuin kontaketa...

ÍÑIGO TERRADILLOS

Sukaldaritza, halterofilia, pilota, ipuin kontaketa, hitzaldiak, antzerkiak, musa, toka... Berrobiko XVI. Kultur Asteko egitarauaren baitan topatu ahal izango da hori guztia. Astelehenean hasi eta larunbata bitarte iraungo du, eta antolatzaileen esanetan, «denentzako zerbait prestatu nahi izan dugu, herri guztiak parte hartu ahal izateko». Halaber, ekitaldiak jendearen gustukoak izatea espero dute, eta bide batez jendearen parte-hartzea eskertu nahi izan dute.

ASTELEHENA (HILAK 8)

17:15. Suziriak eta buruhandiak.
18:00. Halterofilia erakustaldia Urreburu pilotalekuan Zizurkilgo Danena elkartearen eskutik.

ASTEARTEA (HILAK 9)

17:00. Urreburuko gaztetxoaren pilota partidua.
18:30. Sukaldaritza erakustaldia Felix Belaunzararekin Bide Ona elkartearen. Erakusketan prestatuko dituzten platerak zozkatuko dituzte —haurtzaindegi zerbitzua izango da Etxolan—.

ASTEAZKENA (HILAK 10)

18:00. Sukaldaritza erakustaldia Tolosako Ikatza tabernako Kontxi Dorronsororekin, Bide Ona elkartearen. Erakusketan prestatuko dituzten platerak zozkatuko dituzte —haurtzaindegi zerbitzua izango da Etxolan—.

OSTEGUNA (HILAK 11)

17:30. Idoia Sanchezen ipuin kontaketa saioa Galtzaundirenen eskutik.
21:00. Hitzaldia Etxolan Ainhoa Agirrereren eskutik, Peruko Cuzco herrian haur eta gazteekin lankidetzan.



lazkoan bezala aurten ere sukaldaritza ikastaroa izango da. i. t.

OSTIRALA (HILAK 12)

17:30. Eskolako ikasleekin emanaldia Etxolan. Ondoren, Literatur Lehiaketako sari banaketa buruhandiek. **21:00.** *Errelebo*a antzerki saioa Iker Galarza eta Joseba Usabiagarekin.

LARUNBATA (HILAK 13)

11:00. Mus Txapelketa Begi Gorri Gaztetxean.
11:30. Gaztetxoentzako emanaldia Eritz magoaren. **17:00.** Toka Txapelketa.
19:15. Txakoli dastaketa udal txetxearen aurrean.

ZIZURKIL-LEITZA ▶ HERRI KIROLAK

Urrezko Harri-jasotzaileen eta Aizkolarien lehia bihar

Arrospide eta Otaegi aizkolariak eta Saralegi eta Perurena I.a harri-jasotzaileak ariko dira

I. TERRADILLOS

Bihar goizean Urduñan eta arratsaldean Idiazabalen herri kirolen ikuskizun garrantzitsuak izango dira, Urrezko Aizkolarien Txapelketako eta Urrezko Harri-jasotzaileen Bina-kako Txapelketako kanporaketak, hain zuzen ere.

Urduñako pilotalekuan 12:00etatik aurrera Angel Arrospide leaburuarra lehiatuko da Urrezko Aizkolarien Txapelketaren baitan Mindegiaren aurka. Hurrengo norgehiagoka Larretxearen aurka izango du Arrospidek. Idiazabalgo pilotalekuan, bestalde, 18:30etik aurrera, Urrezko Aizkolarien Txapelketan, baina 23 urtez azpikoetan ariko da Joseba Otaegi zizurkildarra Amillanoren aurka. Otaegi Mugerzaren eta Amillanoren talde berean dago, eta lehendabiziko aurrez aurrekoa jokatu du bihar. Beste bi aizkolariak elkarren aurka lehiatu dira jada, eta Mugerza izan da puntuak batu dituenena. Zizurkildarrak, biharkoaren ostean, hurrengo lehia Mugerzarekin izango du.



Arrospide. IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

Aizkoraren lehiaren ostean, harriak hartuko du protagonismoa Idiazabalen; izan ere, Urrezko Harri-jasotzaileen Bina-kako Txapelketaren baitan Goenatxo II.ak eta Izeta III.ak osaturiko bikotea eta Mieltxo Saralegik eta Iñaki Perurenak osaturikoa ariko dira nor bainor. Lehia honetan, antza, Goenatxo II.a eta Izeta III.a dira favorito nagusiak. Txapelketan 2 kanporaketa jokatu dituzte leitzarrek, eta bihar lehiatuko diren bikotearekin berdinduta daude, 3 puntu batuta.

maiatzaren
11tik aurrera

berria berria = berria²

kazeta eredu berria

berritzailea, ezberdina, interpretatiboa, kalitatezkoa, modernoa...

Gurean ULERTUKO DUZU

aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**



LUIS ELIZETXEA ▶ IDAZLEA

NOELIA LATABURU

Pozik, lasai eta lagunartean. Horrelaxe, eta bertaratu guztien presentzia eskertuz, burutu zuen Luis Elizetxeak (1971, Errenteria), herenegun, *Bajo el nivel del mar* bere lehen eleberraren aurkezpena. «Bereziki Hiri argitaletzeko Luis Aranburu editoreari» eman nahi izan zizkion eskerrak idazleak; izan ere, «lehen aukera ematea apustu garrantzitsua egitea da». Kontxi Etxabarri irakaslearekin batera egin zuen agerrialdia Tolosako Kultur Etxean.

Kazetaritzan lizentziatua, Hirukide ikastetxeko irakaslea da, baina idaztea «txiki-txikitik» izan du gustuko. Ez da hau, ordea, literatura munduan egiten duen lehen lana; izan ere, haurrei zuzendutako ipuinak idatzi ditu, eta dokumental bat ere egin du. Eta orain, aspaldiko ametsa bete ahal izan du Elizetxeak. Hala, eta bi urte eta erdi lanetan aritu ondoren, badu bere emaitza: *Bajo el nivel del mar*, gaztelaniaz idatzitako 404 orrialdez osaturiko liburua, alegia. Amodioa eta intriga nahastu ditu errenteriarrek, «irakurterraz den eleberrian». Guztien gainean jardun du Htzarekin.

Nola sortu zen ideia?

Istoria gertatzen den tokian izan nintzenez. Ambiantazioa eta hiria benetakoa da, ni bertan izan nintzen 1997an. Orduan esan nuen han istorio bat zegoela. Buruan nuen eta askotan ezin denez burua kontrolatu, errealitateko oinarri hori hartuta fikzioa sortu dut.

Eta noiz erabaki zenuen ideia paperera pasatzea?

Badira bi urte idatzi nuenetik. Hasiera batean eronka pertsonala zen ea gai nintzen niretzat eta neure buruarentzat idazten nuen. Behin amaituta inguruko pasatu eta ondoren heldu zen argitaratzea. Bi urte eta erdi eman nituen idazten.

Transmititu dizuna eta transmititu nahi zenuena bat al da?

Hasieran neure buruarentzat idazten hasi nintzen, non keinu dezente zeuden nik han bizitakoarekin. Gero, asmatutako istorioak lekua eskatzen zuten. Pertsonaiek jada ez zuten zerikusirik errealitatearekin. Une honetan liburuan suertatzen

«Dendetan gustuko ditudan idazleen lanen alboan nirea ikustea ametsa da»

'Bajo el nivel del mar' bere lehen eleberria kaleratu berri du Luis Elizetxeak; herenegun aurkeztu zuen, lagun artean



NOELIA LATABURU

diren egoerak limitera eraman behar dituzu, errakargaria izateko. Esan daiteke errealitate gertuago zegoela. Liburua idazten duzun heinean aldatzen doa istorioa.

Noiz bait pentsatu al zenuen amore ematea?

Hau edozein joko bezala izan da, non hasieran hutsune asko dauden eta bete egin behar diren. Zailena gauzak lotzea da, koherentzia, ideia hasieratik nuelako. Garatzen zoazen heinean sortzen dira trabak, ez bereziki bukaeran. Une batzutan bertara nola heldu zen arazoa.

Eleberriarekin obsesionatzen zaren heldu zinen une horietan?

Egia da ideiak buruan pilatzen zitzaizkidala eta ate joka daude zure barnean; orduan bai obsesionatzen zara. Gainera, beste lanak, ardurak... dituzu-

Irakurterraz dela; istorioak erakargarriak direla; atalen egitura oso zaindua dagoela eta atal batek hurrengo irakurtzea eskatzen duela; pasarte batzuk geldoegiak zirela; luze-egia zela (bostena kendu nion) eta trama bat gehiegi puztu nuela. Askok eskertu nuen, gero aldatu egin nuelako.

Askok kostatu zitzaizun aldaketak horiek burutzea?

Ez gehiegi. Atal bat zuzenean kendu nuen eta bertan gertatzen zena besteetan uztartu. Kontxik [Etxabarri] aurrekoa eta oraingoa irakurri ditu, eta hoberuntz egin duela esan zidan. Ez nuen uste hainbesteko garrantzia emango nienik iritziei, baina pozten naiz.

Nola egitaratu zenuen guztia?

Hori zen nire kezka larrietako bat. Gidoigintza ikastaroak eman ditut, eta egitura pentsatuta nuen erabat. Luzemetraia baten antzera egin dut. Behar duzu tentsioa, oztopoak eta gauza horiek ildo beretik zuzentzea. Bizkar hezurra nuen eta hori lotzea zen gakoa. Liburua atalka antolatu nuen, bane-kielarik bakoitzean zer gertatuko zen.

Kazetari, irakasle ala idazle. Zer nahiago?

Beharrezkoa dut komunikatzea. Horregatik irakasten dut, eta kazetaritza arloa, gainera. Biak ditut gustuko, baina gazteekin aritzea asko gustatzen zait. Noski, jendeak nire liburua ezagutzea nahi dut, baina nire bizitza aldatu gabe.

Etorkizunerako proiekturik ba al duzu dagoeneko?

Buruak ez du etenik eta bi istorio ditut bueltaka, baina hori ikusiko da. Oraingoz, nire bete-beharrik ditut. ◀

EKONOMIA ▶

Donejakue bideko etapa egiteko aukera, bihar

Tolosatik Beasainera doan ibilbidea burutuko dute, 07:10ean abiatuta

ERREDAKZIOA

Bihar Donejakue barrualdeko bideko etapa bat burutzeko deialdia luzatu dute Tolosaldea Tour-etik. Hala, 07:10ean dute hitzordua Tolosan bertan. Halaber, turismo bulegoko arduradun Alaitz Mendizabalek jakitera eman duenaren arabera, Donejakue bideko kredentzialak ere banatuko dituzte larunbatero, bai eta seilatu ere. Horretarako Santa Maria atzealdean (Kale Nagusiaren sarreran) duten egoitzara bertaratu beharko dute interesatuek.

GIZARTEA ▶

KZgunea Euskadiko Partxis on line Txapelketan

ERREDAKZIOA

Hil honen 17an Internet Partxis on line Txapelketa antolatuko dute Euskal Herria, eta Tolosako KZguneak ere parte hartuko du. Interesatuek izena eman beharko dute KZgunean hil honen 2tik 12ra. Partxis on line partida, berri, hilaren 17an, 10:00etatik 13:00etara izango da; jokalariek KZgunean bertan nahiz etxetik jokatu ahal izango dute. Goizeko 4 jokalaririk 16:30ean jokatuko dute azken txanpa, eta irabazleak erabakiko da. Irabazleak eta azken txanpako 3 jokalariek sariak jasoko dituzte, besteak beste.

iragarki laburrak ▶

LANPOSTUAK

Gidariak. Udaletan eta Eusko Jaurilaritzan laster lanpostuak B1, BTP eta C1. 943 31 37 82.

Garbitzaileak. Lanpostu libreak:

Eusko Jaurilaritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informazioa 943 31 37 82.

Mantenimendu Ofiziala. Ospital, egoitza eta udaltxerako. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Gipuzkoako Foru Aldundiak behar ditu: sukaldari laguntzaileak, obra zaintzaileak, gidariak, zaintzaileak, basozainak, laborategi teknikariak,

garbitzaileak. 943 31 37 82.

Osakidetzak. Lanpostu libreak. Teknikariak, alborategi laguntzaileak, erizain laguntzaileak, zeladoreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Langileak. Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak,

gidariak. Udaletxerako lanpostu libreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak. Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoetako udalek administrari laguntzaile

lanpostuak bete behar dituzte. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Aireportuak. Lanpostuak betetzeko: bezeroari arreta, aireko kontrolatzaileak, suhiltzaileak, mantentze-lanak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

EKONOMIA ▶

Lankidetzeta hitzarmena Fundazioak eta Udalak

E. Ezeiza ▶ Tolosaren 750. urteurrena dela eta, Udal Artxibategian hainbat proiektu gauzatzeko lankidetzeta hitzarmena sinatu zuten joan den maiatzaren 2an, Jokin Bildarratz Tolosa 750 Fundazioako lehendakariak eta Alberto Martinez Kuxako Kultura eta Berrikuntzako buruak. 60.000 euroko laguntza hau 2005-06ko proiektuak gauzatzeko izango da. Horien artean dira urteurrenaren oroigarri diren postalen edizioa eta Tolosako musika tradizionak biltzen dituen mila CD ale. HITZA

TRAFIKOA ▶

Ibilgailuko tresnen segurtasun kanpaina

Ertzaintzak eta Udaltzaingoak elkarlanean aurrera eramango dute, hil honetako lehenengo hamabostaldian

ESTI EZEIZA

Tolosako Udaltzaingoak, maiatzeko lehen hamabostaldian, kanpaina berezi bat egin behar du segurtasun uhalaren erabilera eta haurren segurtasun ahulkiaren erabilera zaintzeko. Bide-Segurtasuneko Plan Estrategikoaren barruan, ekinaldi hau elkarlanean burutuko dute Ertzaintzak eta Udaltzaingoak, bakoitzak bere eskumenen barruan.

ISUNAK ▶

Informazio kanpaina izan arren, isunak ipiniko dituzte.

- ▶ Gidariak edo bidaiariak segurtasun uhal lotuta ez eramatea: 150 euro.
- ▶ 12 urtetik beherakoek, aurreko eserlekuan doazela, homologatutako eusteko sistema ez erabiltzea: 150.
- ▶ 3 urtetik gorako adina eta

- 150 zentimetrotik beherako altuera dituzten pertsonak euste-sistema homologatua ez erabiltzea: 150 euro.
- ▶ 3 urtetik beherakoek, atzeco eserlekuan doazela, neurri eta pisuaren araberako euste-sistema homologatua ez erabiltzea: 150 euro.
- ▶ Ibilgailuak segurtasun-uhailik instalaturik ez izatea: 150 euro.

HEZKUNTZA ▶

Tolosaldea LHIn jardunaldi irekiak

E. EZEIZA

Hilaren 11n, 18:00etatik 21:00-etarainstazioak ezagutzeko bisita gidatua eta eskaintza akademikoa agertzeko jardunaldi irekia antolatu ditu Tolosaldea Goi mailako Lanbide Heziketa Institutuak. Bisitaldia ikasle, langile, enpresa eta interesatutako denei zuzendua da.


▶ TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Irudietan. III. Hitza Argazki. Lehiaketara parte-hartzaileek bidalitako argazki guztiak daude ikusgai gure webguneko Irudietan atalean. Sartu eta ikusi!

- ❖ Diseinuak
- ❖ Ereintzak
- ❖ Landatzeak
- ❖ Ureztatze sistemak
- ❖ Mantenimentuak

lorategi zerbitzuak

Tel.: 948 510 287 – 667 848 832

Tel.: 943 67 31 18

arretxe lorategia

Santa Luzi auzoa, 1 • 20400 Tolosa, Gipuzkoa

Tel.: 943 67 10 26
670 827 278
Euskal-Herria, 38
IBARRA

GARAZI loradenda

Tel.: 943 693 408

Renigio-enca • Ernio Bidea 1 behea
20159 Zizurkil

Iparralde bidea z/g.
20014 Astigarraga.
Futbol zelaiaren aurrean.

943 556 109

bizitegia

HANDIZKARIAK

Tel. 943 69 68 64 • Faxa: 943 69 68 47

Zumeta

LORE eta LANDAREAK

udaberria iritsi da
TOLOSALDERA ETA LEITZALDERA

ADUNA ▶ LITERATURA

Juan Kruz Igerabiderentzat saria

Beterriko Liburua Literatur Aipamena jaso du adunarrak jaioterrian, 'Hauts bihurtu zineten' eleberriarengatik

IMANOL GARCIA

Prestatuta ematen bazuen ere, «txirripaz» gertatu zen Juan Kruz Igerabide adunarrak bere herrian jasotzea Beterriko Liburua 2005 Literatur Aipamena. *Hauts bihurtu zineten* eleberriarengatik lortu du idazleak irakurleek beren iritziekin emandako saria. «Oso pozik» jaso zuen Igerabidek aipamena eta, hunkiturik, bere amari eskaini zion: «Berak erakutsi zidan Beterriko euskaraz».

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak antolatzen duen sari banaketa hamargarren edizio-ra iritsi da. Ekitaldiko mahaiburua osatu zuten Jon Unanue Larramendi Kultur Bazkuneko lehendakariak, Arantxa Aburuza Adunako alkateak, Xabier Huitzi Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Normalkuntzarako zuzendariak eta Eloi Egibar Beterriko Liburuaren epaimahai-buruak.

Jon Unanuek zehaztu zituen eleberriaren merezimenduak. «Gaiaren gazi-gozoak baino areago, pertsonaien izaera ondo taxutuak gailentzen da, baita euren arteko harreman

sarea ere», esaterako. Edo, «kontaketa erraizetan sartzea erraza bezain atsegina egin du Igerabidek. Hizkuntza goxoa darabil, txukuna eta zaindua». Liburua kokatzen den historia unea ondo islatzen duela ere nabarmendu zuten: «Frankismo garaiko eta ondorengo urteetako egoera sozio-politikoaren hausnarke-ta sendoa eskaintzen du liburuak. Adunaren ispilu den herri txiki bateko biztanleen azal-etik egin».

Arantxa Aburuzak, bere aldetik, egun sortzaile andana dagoela esan zuen, baina irakurlearen aldetik agertu zituen kezkek. «Nahikoak dira? Zer joera hartuko du irakurzaletasunak datozen urteetan?», galdetu zuen, eta irakurzaletasuna suspertzeko eta biziberritzeko Udalaren sostengua aipatu zuen.

Guztira, 43 proposamen egin dira Beterriko Liburua aukeratzeko, horietatik 37 epaimahai-kideek eta besteak gainerako irakurleek. Igerabide adunarraren *Hauts bihurtu zineten* eleberriari 16 boto jaso ditu guztira.



Unanue, Aburuza, Igerabide, Huitzi eta Egibar, sari banaketaren une batean. I. GARCIA

JUAN KRUZ IGERABIDE ▶ IDAZLEA

«Idazleak aurretik joan behar du, eta gero irakurleak irabazi»

Ekitaldiaren amaieran tartetxo bat izan zuen HITZAK Juan Kruz Igerabiderekin solasteko. Gustura ikusten zitzaien saridun berriari.

Zer suposatzen du sari hau jasotzeak?

Oso pozik nago. Herrian bertan eman didate, nik ikasi nuen leku berean, eta baita maisu egin nintzen lekuan ere. Prestatuta ere ez zen hain ondo atera-

ko. Eleberriak garai haietan bitzitakoak islatzen ditu. Ez da autobiografikoa, baina bitzitakoa eta kontatutakoa inplikaturat dago.

Helduentzako lehen eleberria da. Zein da ezberdintasuna?

Orain arte idatzitakoak ez ziren hain luzeak; ezta hain konplikatua egiteko ere. Horrelako saria jasotzea bultzada bat da, animatuta sentitzeko motiboa.

Nola ikusten duzu egungo irakurzaletasunaren egoera?

Idazleak aurretik joan behar du, eta gero irakurleak irabazi. Gero eta idazle gehiago dago, eta indartsuagoak. Irakurleak irabazteko bigarren pausu hori lortuko al da? Oinarria badago, eta ekimen hauek horretara bultzatzen dute. Bestalde, herrialde guztietan jaisten ari da irakurzaletasuna. ◀

VILLABONA ▶

Gizonezko bat eta bere ama atxilotu ditu Ertzaintzak

Bi atxilotoketa burutu zituen atzo goizean Ertzaintzak Villabonan. G. I. A. inzialeko gizonezkoa atxilotzeko epai-agindu zuen eta 08:15ak aldera burutu zuten. Ertzaintzako iturriek ez dute zehaztu epai-aginduaren arrazoiak. Atxilotetaren anean, gizonezkoaren ama ere, E. I. A., atxilotua izan zen, aginteriari eginiko desobedientzia larriarengatik, Ertzaintzak azaldu duenez.

ZIZURKIL ▶

Loatzoko ikasleen emanaldia Atxulondon

Zizurkilgo Maiatza Saltsan egitarauaren baitan, atzo Loatzoko musika eskolako ikasleek kontzertua eskaini zuten Atxulondo kultur etxean. Jende ugari joan zen eta aretoa guztiz bete zuten. Musika ikasleak bere instrumentuekin egiten ari diren aurrerapenak entzun ahal izan zituzten. Bestetik, Maiatza Saltsan baitan ere, gaur Umeen Eguna eta bihar Andantza Eguna egingo dira.



Instrumentu ugari entzuteko aukera izan zen, eskusoinua, tartean. I. G.

ANOETA ▶

Herri kirolen festa gaur Benta-Aldearen ondoan

Herri kirolen festa antolatuta dute gaurko Anoetako Benta-Aldea Bodegoiaren ondoan. Idi dema, aizkolaria, soka tira eta harri-jasotzaileak izango dira. 2.000 kiloko harriarekin ekingo diete ekitaldiei, 12:00etan, apustu berezi batekin. Jokin Garmendiaren idi pareta, astoa eta hamar gizonen aurka lehiatuko da nor baino nor. Horren ondoren, 13:00ak aldera, Jokin Garmendiarekin batera aizkolaria ezagunek bere abilezia erakutsiko dute: Joxe Mari Mendizabal, Angel Arrospide, Arria II.a eta Donato Larretxea. Ondoren, soka tira lehia eta harri-jasotzaileak ere izango dira. 15:00ak aldera, bazkaria hasiko da, eta «nahiko parranda egiteko aukera», antolatzaileek zehaztu dutenez.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Seat Toledo TDI. 2002koa. 53.000 kilometro. Urtebeteko garantia. 943 11 77 59.

BESTEAK

Danbor-jotzailea. Lizardi konpainiak (neskena) danbor-jotzailea behar du. Deitu ondorengo zenbaki hauetara: 606 63 39 83 (Maite), 686 40 59 32 (Arantxa).

ZIZURKIL ▶ KULTURA

JAIONE ASTIBIA

Olentzo arte lorategia proiektua aurkeztu dute Zizurkilgo Udalak eta Xpression!!! Kultur Plataformak elkarlanean: artista ezezagunentzat bideak irekitzeko helburuarekin batez ere, Zizurkilen dagoen Olentzo jatetxearen aurreko lorategia, erakusketa leku bilakatuko dute ekainetik aurrera.

«Euskal Herriko artista ezezagunek zailtasun asko izaten dituzte beren artelanak erakusteko, jendeari helarazteko. Proiektu honekin gure babesa eman nahi diegu». Horixe azaldu zuen Maria Angeles Lazkanok, Zizurkilgo alkatea, Olentzo arte lorategiaren aurkezpenean: «Gipuzkoan ez ezik, herrialdeetatik kanpo ere, eskulturgintzako erreferente bilakatu dadin da xedea».

Bide batez, «arte lorategi hau zizurkildarrentzat eta baita gainerako herritarrentzat ere gozamenarako gune izatea nahi dugu», adierazi zuen.

Erreferentzialtasuna

Olentzo jatetxearen ingurunea (ingurune paregabean) dagoenaz baliatuko dira proiektu hau aurrera ateratzeko eta «jendeari artea eskuragarri» jartzeko.

Hain zuzen ere, helburu horixe du ardatz Xpression!!! Kultur Plataformak berak ere, «artista ezezagunei, artista ez profesionalentzat bideak irekitzea, beren artelanak erakusteko lekuak bilatuz, ikusleengana iristeko erraztasunak bilatzea», Jokin Telleriak erakunde horretako koordinatzaileak adierazi duenez. «Zirkuitu komertzialean sartzeko zailtasunak ditu artistak. Alde horretatik, Xpression!!!-ek artistaren eta publikoaren arteko zubi lana egiten du, harentzat erakuslehoiak bilatuz eta azken honi doako eskaintza eginez». Eskertu dute Olentzon artista ezezagunen lanak erakusgai jartzeko lekua utzi izana.

Proiektua egikaritzeko, ordea, artisten parte-hartzea ezinbestekoa izango da. Hala,

Artista ezezagunen erakuslehoio izango da Olentzo arte lorategia

Eskulturgileentzat lehiaketa deialdia egin dute; lehenengo 10 sailkatuen obrekin erakusketa egingo dute Olentzon



Olentzo jatetxeko lorategia arte erakuslehoio bilakatuko da ekainetik aurrera. JAIONE ASTIBIA

OLENTZO ARTE LORATEGIA ▶ LEHIAKETAKO OINARRIAK

Eskulturgile ez profesionalentzat.

Aurkeztu beharrekoa. Artista bakoitzak gutxienez 2 obren argazki digitalak.

Obren tamaina. Gutxienez 50 cm-ko garaiera.

Non aurkeztu. info@xpressionk.net helbide elektronikora bidaliz.

Epea. Maiatzaren 17a.

Artisten sailkapen data. Maiatzaren 22a.

Jatorrizko lanak aurkezteko epea. Sailkatuentzat,



Telleria, Lazkano eta Gonzalez, proiektuaren aurkezpenean. J. ASTIBIA

maiatzaren 23tik ekainaren 5a arte.

Erakusketa. Ekainaren 9tik urriaren 1a arte.

Olentzo arte lorategirako eskultura lehiaketako deialdia egin dute. Manuel Gonzalezek aurkezpenean azaldu zuenez,

«artisten obrek bete beharreko baldintza bakarra izanena dute: gutxienez metro erdiko altuera izatea. Hortik aurrera,

Besterik. Sailkatutako obren egileek baimenduko dute horiek erakustea eta edozein formatutan erreproduzitzea.

dena librea da, ez dago mugarik».

Lehiaketan parte hartuko duten artista guztietatik, «ba-



'ZAKO'
ESKULTURGILEA

«Oso positiboa da. Artista konsagratuez gain, erakusten ari da badagoela beste zerbaite ere, edozeini lagunduz»

koitzak gutxienez bi obra aurkeztu» beharko ditu, eta hauek «gehienez» 10 artista sailkatuko dira. Hauexen lanak jarriko dituzte erakusgai Olentzo arte lorategiaren aurreko aldirian. Hori ekainaren 9tik aurrera izango da.

Ezagutzera emateko

Nabarmendu dutenez, bestalde, sailkatu hauen arteak irabazle ateratzen denak leku horretan bertan (bakarkako erakusketa egiteko eskubidea) izango du. Gainera, erakusketa horretan egongo diren obrak salgai jar ditzakete artistek, hala nahi izanez gero, «irabazi guztiak artistarentzat izanez, hori baita gure elkartearen jorkabidea».

Artista munduan lanean ari diren hainbat kide ere izan dira proiektu honen aurkezpenean, eta «oso positiboki» baloratu dute ekimen hau. Halaxe adierazi dio HITZARI Agurtzane Otegi —Zako ezizen artistikoaz—: «Euskaldunak, hiru edo lau artista daude oso onak, eta gainerakooi oso zaila egiten zaigu mundu horretan bide bat egitea. Elkarte honen lanari esker, ikusten ari da badagoela beste zerbaite ere. Mugarik jarri gabe, edozein arte espresio laguntzen dute. Nik urte bete honetan 8-9 erakusketa egin ditut».

Artistek lanak aurkezteko epea hil honen 17an bukatuko dela jakinarazi dute.

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko maiatzaren 6a, larunbata ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



BIHARKO EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

943 30 43 46

AGENDA ▶

AZOKA

Tolosa. Lore eta Landare Azoka. Goiz osoan, Berdura plazan.

DEIALDIK

Ibarra. Garagardo Festa: 18:00etatik 02:00etara zabalik, plazan. 15:00etan, Ezetz txerriak 60 kg sagar erre jan! apustuaren grabaketa, Izaskunen; 18:00etan, festak plazan jarraituko du; 18:30ean, 1, 2, 3.. Inaxito bertso antzerkia haurrentzat. Tolosa. Aralar VI. Txirrita mendiko ibilaldia antolatuko du Oargi mendiko taldeak hilaren 21erako. Amezketatik 06:00etan abiatu eta Aralarko 13 gailur igoko dituzte. 45 kilometro dira guztira, Amezketan amaitu arte. Izen-ematea, 943 67 56 12an edo oargi@telefonica.net, 10 eurotan.

MUSIKA

Amezketak. Errenteriako Landarbaso abesbatza. Bihar, 11:30ean. Tolosa. Habeas Corpus. 22:30ean, Bonberenean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi ebea. 112.
Tolosa. Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

IRRATIA

Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM) 10:30-13:00. *Hitza* hegaztiaren magazina.

Goiko irratiak (107.0 FM) 13:00. *Kornera* magazina.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

ARGAZKI LEHIAKETA ▶



Juanjo Esnaola (Anoeta). «Lizara aterpebea, Bisaurin mendia atzean ikusten dela». Huescako Pirinioak (Espainia).



Amaiur Jauregi (Tolosa). «Salient de Gallego inguruan ikusten diren paisajeak zoragarriak dira». Huescako Pirinioetan (Espainia) ateratako irudia da, Lanuzako lakua eta Foratata mendia ikusten direla».



Beatriz Esnaola (Anoeta). Nafarroan, Xabierko gazteluari argazkia ateratu dio anoetarrek.



Koldo Jauregi (Tolosa). «Valentziako kostaldeko herri batean ateratako argazkia da, gure ebetiki. Apartamentu igerileku liluragarri hori ikusten da; gainera, gauez kolore guztietako argiak pizten zituzten, eta zoragarria zen ikusizuna».



Fernando Rojo (Tolosa). «Munduko bazter batzuetan gazte-gaztetandik hasi behar dute lanean, Kurdistango mendietako herririk honetan bezala. Ez dute horregatik bizipoza galtzen».

AGURRAK ▶



ZORIONAK
Danel (Amaroz).
9 urte. Aimar, yaya, ama eta aitaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
agurren tarteak

hitza lagunena **txokoa**


▶ Hitza lagunena txokoa, zozketen irabazleak:

- ▶ Astelehenean, Maiatzak 8 - Beotibar pilotalekuan, 16:30etatik aurrera jokatuko diren pilota partidetarako bina sarreren harpidedun irabazleak:
 - ▶ PATXI RENOVALES TOLOSA (ALEGIA)
 - ▶ IZASKUN KARRERA UGARTEMENDIA (TOLOSA)
 - ▶ ANDRES ARAMENDI TXOPIETA (IBARRA)



▶ Ibarako III Garagardo Festarako bina afariren harpidedun irabazleak:

- ▶ JOXI LASA ARSUAGA (IRURA)
 - ▶ JOSE LUIS IRAOLA GARMENDIA (VILLABONA)
 - ▶ MILAGROS IZTUETA MENDIZABAL (ALTZO)
 - ▶ JOSE RAMON ESNAOLA ZABALA (LEABURU)
- Txartelak azokan bertan jaso beharko dituzte.



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero